

Gomendatutako liburua:

-Greenfeld, Howard. "Marc Chagall". Harry N. Abrams. New York. 1990.

-Bonfand, Alain. "Paul Klee: le geste en sursis". Hachette. Paris. 1995.

-Tabart, Marielle. "Brancusi, l'inventeur de la sculpture moderne". Gallimard. Paris. 1995.

-Battistini, Matilde. "Modigliani: un pintor maldito en el París de las vanguardias". Electa. Barcelona. 2000.

## ARTISTA INDEPENDIENTEAK

Aldi historiko eta kultural honetan garaiko taldeen edo mugimenduen barne ez zeuden artistak ere aurkitzen ditugu. Nahiz eta artista independenteak izan, arlo artistikoetan eragin emankorrek sortu zituzten. Artista deigarri hauen artean, Constantin Brancusi, Amedeo Clemente Modigliani, Paul Klee eta Marc Chagall aipa daitezke.

Constantin Brancusi (1876-1957) Errumanian jaio zen. Bukarest-eko Arte Ederretako Eskola Nazionalean ikasi zuen eta Vienan eta Munich-en bere prestakuntza hobetu zuen. Parisen egoitzatu zen azkenik eta han bere karrera profesional osoa garatu zuen. Hiriburu honetan Auguste Rodin eskultorearen eragin formalak berpizteaz gainera, Modigliani, Erik Satie eta Marcel Duchamp-ekin harremanak hazi zituen.

Lehen Mundu Gerra amaitu arte, Brancusi-ren ibilbidearen hasieran gabetasuna eta urritasuna ziren nagusi, baina geroago abangoardia artistikoen eskultore handienetariko bat izatera heldu zen.

Bere estiloa esentzia formaletara hurbiltzen zen, batetik forma puruak eta elementalak garatuz, eta bestetik, osagai edergarriak alde batera utziz. Artistak jardundako xehetasunen ezabapena zela eta, abstrakzioarantz jo zuen. Bere helburua edertasun purua eta espirituala bilatzea zen, haren gustoko formen bidez. Adibidez, txoria, arraultza eta emakume-buruak erabili zituen. Artelan guztiek (brontzea, marmola eta egurra) materialen leunketaren prozesua erakusten dute. Bere eskulturaren hurrengo iturburuak elkartzen ziren: Errumaniako arte popularrekiko elkartasun estrukturalak eta morfologikoak, arte afrikarreko analogiak eta Mediterraneoko eta Balkaneetako historiaurreko estatuaria.

Amedeo Clemente Modigliani (1884-1920) Italian jaio bazen ere, bere karrera osoa Parisen garatu zuen. Artista buhamearen prototipoa irudikatzen zuen, bere gaixotasuna, pobrezia, eta alkoholaren eta drogen gehiegizko kontsumoa zela kausa. Askotan gertatzen den bezala, hil ondoren eskuratu zuen ospea.

1906an Parisa abiatu zen, non Max Jacob, Picasso, Apollinaire, Diego de Rivera eta Vicente Huidobro ezagutu zituen. Hasieran Toulouse-Lautrec, Cezanne eta Picassoren aldi urdinaren eraginak jaso zituen. Gustav Klimt eta Utamaro artista japoniarraren eraginpean ere aurkitu zen.

Modiglianik ikutu gabeko koadroak burutu zituen. Afrikar eta Kanbodiarraren artea ezagutu ondoren, aurreko estiloen ezaugarri formalekin saiatzeko hasi zen, hurrengoko gaiak landuz: almendra-itxurako begiak, aho txikiak, sudur makurrak eta lepo luzangak.

Paul Klee (1879-1940) margolari suitzarrak bere bizitzaren gehiengoa Alemanian eman zuen, estilo artistiko desberdinetatik higituz: surrealismotik, espresionismotik eta abstrakziotik. Munich hirian ikasi zuen artea. Gehien erabili zituen teknikak olio, akuarela eta tinta ziren. Bere artelanetan poesia, musika eta ametsen mundua elkartu egten ziren.

Alemanian Kandinsky eta Franz Marc margolariak ezagutu ondoren, “Der Blaue Reiter” alemaniar taldearekin harremanak hasi zituen, baina ez zen talde honetako kide ofiziala izan. Geroago “Die Blaue Vier” taldean sartu zen, Kandinsky, Feininger eta Jawlensky artistekin. Handik aurrera Paul Klee margolariak beste artista batzuen lanetan eragin zuen, Rene Carcan pintorearekin gertatu zen moduan.

Bizitzan zehar bidai desberdinak egin zituen, esate baterako, Italiara, Tunezera eta Egiptora, leku horietatik argi-eraginak berpiztuz.

Bauhaus-en garaian, Klee bere mintzaira piktorialeko sistematizatzen hasi zen, Europako abangoardietako sortzaile asko ezagutzearekin batera. Bauhaus eskolan jasan zuen irakaskuntza bere lan artistikoaren atzetik jartzean, eskolako kide batzuekin tentsioak sortu ziren. Azkenean, 1931.ean Dusseldorf hirian irakasten hasi zen, naziek judua izatea leporatu zioten arte. Geroago herbestea Suitzan igaro behar izan zuen, non esklerodermia hasi zitzaion.

Marc Chagall (1887-1985) margolari errusiarra garaiko joeren eraginetatik at geratu zen, estilo propio bat eratu baitzuen. Bere artelanez sinismen erlijiosoen eragin handia erakusten zuten eta askotan autobiografikoak ere baziren. Bizitzaren gai handiak hartzen zituen kontutan (amodioa, heriotza etab.). Berotasun handiarekin landu zituen eta ondorioz, publikoaren sail zabala bereganatu zuen.

Margolari ona izateaz at, beira dekoratzaile, liburu ilustratzaile eta eszenografo lanetan ere goraiatua izan zen.

Irudi fantastikoak erabiltzeaz gain, oso irudi pertsonalak egin zituen. Magiaz eta sinbolismoz bustirik zegoen mintzaira propioan sakoneko emozioak landu zituen. Joera artistiko garaikideak aztertu zituen: kubismoa, espresionismoa eta surrealismoa. Dena den, bere izaera joera guztien gainetik gailentzen zen bere lanetan. Pariseko esperientziaren eragina gehienbat kolorean nabaritu zen.

Margolari surrealista batzuren eta bere koadro batzuen artean amankomuneko ezaugarriak aurki daitezke. Adibidez, Chagall-ek misterio eta eskema erakargarriak egin zituen, baina zentzu razionalik gabe. Dena dela, hark surrealisten kide bat izateari uko egin zion.

Eguneroko gaiak landu bazituen ere, askotan irudimenean oinarritutako gaiak aurki ditzakegu.

## GAIARAKO ARTELAN INTESGARRIAK

### CONSTANTIN BRANCUSI

- “Musua” (1906)
- “Loti Musa” (1910)
- “Maiastra” (10.hamarkada)
- “Jaio berria” (1915)
- “Printzesa” (1915)
- “Txorian espazioan” (saila – 20. hamarkada)
- “Sokrates” (1922)
- “Mademoiselle Pogany” (1931)
- “Ixiltasunaren mahaia” (1938)
- “Musuaren atea” (1938)
- “Etengabeko Koloma” (1938)

#### AMADEO CLEMENTE MODIGLIANI

- “Emakume-burua kapelaz” (1907)
- “Emakume-burua” (1910-1911)
- “Burua” (1911-1913)
- “Burua” (1912)
- “Rose Caryatid” (1914)
- “Juan Gris artistaren erretratua” (1915)
- “Paul Guillaume arte-merkatariaren erretratua” (1916)
- “Biluzi jesarrita” (1918)
- “Jeanne Hébuternereren erretratua” (1918)

#### PAUL KLEE

- “Domo gorriak eta zuriak” (1914)
- “Lorategiak” (1919)
- “Izei txikia” (1922)
- “Txioketaren makina” (1922)
- “Kale nagusia eta bigarren mailako kalea” (1929)
- “Ad Parnassum” (1932)
- “Martir-burua” (1933)
- “Geroko gizona” (1933)
- “Aingeru txiroa” (1939)
- “Paul, Paul Klee deitzen naiz” (1941)

#### MARC CHAGALL

- “Biluzi jesarria gorrian” (1908)
- “Ni eta herria” (1911)
- “Etxe grisa” (1914)
- “Urtebetetzea” (1915)
- “Artistaren emakumea” (1914)
- “Hiru akrobata” (1926)
- “Akrobata” (1930)